



Landalan "Hartu eta eman"

Joanba Bergara

Funtsezkoa da euskara-irakaslearen prestakuntza, helduen euskalduntze-/berreuskalduntze-egitasmoari behar hainbat etekin aterako bazaio. Funtsezkoa halaber, irakasleak lankideengan ezezik bere buruarengan ere behar hainbateko konfidantza izan dezan. Baina hori esanda, eta jadanik lanean ari den irakaslearen kasura mugatuz, nori dagokio oinarritzko egiteko horren ardura? Erakundeei? Euskaltegiei? Irakasleari berari? Guztiei, nere ustez, horretan denok bait dugu zer erantzunik. Beraz, bakoitzak bereari eutsi beharko genioke eta denok elkarri kontuak hartu.

Ondoko lerrootan, zerrendako azkenekoari helduko diot, irakasleari alegia, bere prestakuntza iraunkorra zertzeko lagungarri gerta dakioken baliabide bat aurkeztuz. Ekarpen txiki honen bidez, irakasleak bere burua janzteko erabiltzen duen tresneria hobea dezakegulakoan.

"Hartu eta eman" egitasmoa (.1)

"Hartu eta eman" du izena orain labur-labur deskribatuko dudan teknikak. Hitz batez, irakasle zenbaiten arteko hitzarmena da, honetanxe datzana:

- Gai jakinen batean interesik duten irakasleek beren izena ematen dute "Hartu eta eman" proiektuan esku hartzeko. *Proiektu* hitz handia erabili arren, honek ez du esan nahi ur handietan sartu behar denik. Ezta gutxiagorik ere. Proiektuak ez du zertan korapilotsua izan behar. Hasieran, behintzat, proiektu ximpleekin hastea komeni da. "Abestiak euskalduntzean" kasu, abesti-sorta baten hustiraketa didaktikoa ekoiztea bait du helburu.
- Izena emateko epea bukatutakoan, proiektuaren koordinatzaileak .1 dokumentua osatuko du eta partaide guztiei horren kopia banatuko die, guztiak jakinaren gainean egon daitezen.
- Izena eman dutenek, nahiz eta ez zin egin, betebeharrak hartuko dute beren gain: beste lankideei, fetxa jakin baterako norberaren lanaren kopia bana bidaltzea.

Lanen formatoa (.2)

Lanen aurkezpenak .2 ereduaren ildoei egokituz egin litezke, besteei zuzenduriko azalpenak ahalik eta argien gerta dakizkien. Hauexek ditugu, besteak beste, kontuan hartu edota zehaztu beharrekoak:

- a. Lana, errezeta-moduan antolatuz (.2), idazmakinatuta bidaltzea komeni da.
- b. Luzera: 1-2 orrialdekoa.
- c. Lanaren hasieran proiektukidearen izena eta helbidea jarriko dira.
- d. Ondoren, proiektuaren izenburua; eta, hurrengo lerroan, bidalitako lanarena.
- e. Maila: lana *nori* zuzentzen zaion zehaztuko da atal honetan, hizkuntz maila edota adin-taldea alegia.
- f. Helburua(k): lortu nahi denaren azalpena.
- g. Materialak: ariketa(k) egiteko behar diren baliabideen zerrenda zehazta, ezinbestekoa baita iturri horiei buruzko behar hainbeste zertzelada ematea.
- h. Iraupena: ariketa(k) egiteko behar den denboraren gutxi gorabeherakoa.
- i. Preskaketa: ikasleekin egin aurretik, ariketa moldatzean egin beharreko pausuen zehaztapena. Adibidez:
 - Gakoa gertaeren ordena duen sekuentzia bat aukeratu.
 - Idatzi zortzi esaldi, sekuentziaren laburpen gisa, eta berauek zenbatu; esaldien ordena ez dator bat sekuentziako gertaerenarekin. Amaitutakoan, ikasleak adina kopia atera.
- j. Ikasgelan: gelan ikasleekin erabiliko den prozeduraren zehaztapena pausuz pausu (adibidez: girotze-ariketa beharrezko/ ez beharrezko, eman beharrezko argibideak, materiala noiz banatu, taldekatze-mota...).
- k. Ariketa amaitutakoan zerbait gehiago egingo da ala ariketa bere horretan utziko? Eta etxerako/hurrengo saiorako ezer utziko al da ala ez?
- l. Aldaerak: ariketa egiteko beste modua(k) proposatuko dira? Edota beste mailatan erabiltzekoak?
- m. Eranskina: “errezeta”rekin batera eranskinik bidaltzen al da? Baiezkoa bada, + ikurra borobilean sartuko da. Alderantzizkoan, aldiz, - ikurra.

Zergatik “Hartu eta eman”

Goian esan bezala, zeresan handia du euskara-irakasleak bere eta lankideen prestakuntzan. Eguneroko ihardunean batek eta besteak erabilitako hainbat teknikaren, ekinaren ekinez jorratutako bideen eta *asmaturiko* guztiaren berri edukiz, geure burua hobeto janzteko inspirazio-bide aparta aurkituko dugu. “Hartu eta eman” teknika horretarako bide on bat da, eta ia-ia hutsaren truke lor daiteke. Irakaskuntzarako baliabideak biderkatu egingo dira irakasleen arteko truke emankorrei esker.

“Hartu eta eman”ek gurean zenbaitetan sortutako “taldetxoak” suntsitzeko eta elkarrekiko isolamendua apurtzeko parada eman dezake, lankideenganako konfidantza etengabe indartuz.

“Bakar-bakarrik” atzaparka lanean aritu beharrean zergatik ez lasaiago “Hartu eta eman”ean ihardun? Egitasmoak balioko duen ala ez duen zalantzan gaudela? Ba, aprobak egin arte ez dago gauzak argitzerik.

Gaiak

Goian azaldu denez, “Hartu eta eman”en jorratuko diren gaiak ez dute zergatik zailak gertatu behar. Eta gehienetan ez dira zailak izango. Zein gai aukeratu erabat partaideen esku dago eta. Horregatik, hain zuzen, alferrikakoa litzateke hemen gai-zerrenda luze bat eskaintzea. Gainera, gaiak askotarikoak bezain ugariak dira. Baina adibide gisa batzuen zerrenda

IZEN-ABIZENAK: _____ 3.

HELBIDEA: _____

PROIEKTUA: _____ 4.

Maila: _____ 5.


Helburua: _____ ...

**Ondoren/Etxerako/Hurrengo
saioan**

Materiala: _____

Iraupena: _____

Prestaketa _____ **Aldaerak**



Ikasgelan

1.	Eranskina	+	-
2.	Oharrak		

Oharrak

–Koordinazio-lana dela eta, ZUTABE prest dago ardura hori bere gain hartzeko. Beraz, interesatuek arestian eskatutako informazioa honako helbidera bidal dezakete:

HABE

ZUTABE “Hartu eta eman”

Reina Regente, 2-2.a

20003 DONOSTIA

–Ni neu aritua naiz artikuluan azalduko egitasmoen antzeko esperientzia emankorretan (micro-teaching saiotan eta TESOL Erakundearen kongresuetako *Swap Shop* izenekoetan, besteak beste). Horrelako esperientziek eraginda bildu ditut artikulua honetako gogoetak. Tim Murphey-k, 1990.eko IATEFLeko Nazioarteko Batzarrean Dublingo Trinity College-ko txoko batean ezarri zuen “Pop music rotation scheme” posterrak ere piztu zidan “Hartu eta eman” idazteko grina.